

IÑAZIO MARIA ETXAIDE LIZASOAIN (1884-1962)

Donostian gure euskaltzainburua, 1962 azaroaren 14-an il zan. Bere bizitzako garai nabarmenenak auek dira:

1884. Donostian jaio zan abenduaren 1-ean Mayor kaleko lenengo numeroan —Igentea kalearekin kantoia egiten duen etxean— eta Santa Maria-ren elizan biaramonean bateatu zuten.

1895. Batxilleratoa estudiantzen asi zan eta bere arreba Elvira-k esan duen bezela etzan joan iñongo kolejiotara, batez ere 1895 urtetik aurrera bere familiak urtearen erdia Donostian egiten zuelako eta beste erdia Bergara-n.

1900. Batxilleratoa bukatu eta Injinadore Industrialen Eskolan sartzeko kursoa asten du.

1901. Bilboko Injinadore Industrialen Eskolan sartzen da.

1906. Urrian Injinadore Industrial titulua artzen du.

1907. Agustuaren 29-an Gipuzkoako Diputazioan sartu zan Katastro Industrialaren serbitzuan.

1907. Euskera estudiantzen asten da, ezpaizekien ia ezer, berberak aitortu zuenez.

1909. Martxoaren 9-an, esamiña batzuen ondoren, Gipuzkoako Diputazioko Injinadore Industrialala izendatua izan zan eta izentazio orren barrenean zegoen Probintziako Telefonoen zuzendaritza ere.

1909. Apirillaren 8-an il zan bere aita Ignacio Echaide Echeveste.

1910. Garagarrillaren 14-an Donostiako Gazteria Integristaren buruzagia izendatu zuten eta 1914 urterarte egon zan kargu ortan.

1910. Agustuaren 27-an "Banco de San Sebastián"-eko konseilari izendatu zuten eta il arte irauin zuen.

1910. Erramon Inzagaray jaunarekin batera bere gain artu zituen Gazteria Integristaren euskal ikasketak.

1915. Apirillaren 29-an ezkondu zan Zumarraga-n, bertako alaba batekin: Maria Dolores Itarte Alberdi-kin. Amar aur jaio zitzaizkien: zazpi seme eta iru alaba.

1918. "Elorriaga y Cía." ur kontadoreak egiteko enpresa industrialean sozio sartzen da. Negozioan zeukan partea 1934 ilbeltzaren 2-an saldu zuen.

1926. Gipuzkoan telefono automatikoaren eragille izanik, Donostiako erri telefonoen zuzendariarekin batera telefono automatikoa jartzen du amabost kilometroko zirkunbalazio perimetro batean Donostia inguruan, Aginaga, Andoain eta Oyartzun artzen zituela bazterretan. Españia osoko lendarbiziko instalazio automatikoa izan zan.

1926. Iraillaren 30-ean gorago aipatutako egintzaren sari bezela Lanaren Zillarrezko Medailla ematen zaio.

1928. Ilbeltzaren 25-ean Donostiako Gazteria Integristaren "La Cruz" astekari katolikoa atera zan argitara bera fundatzaillleen arteko sozio eta lan-kide fiña zala.

1928. Donostian bere etxea zabaldu zuen "Legión Católica Española"-k bera fundatzailléen arteko sozio zala.

1930. Ilbeltzaren 14-an il zan bere ama Maria Pilar Lizasoain Minondo.

1932. Maiatzaren 15-ean zabaldu zuen bere etxea Donostian "Centro de Actuación y Propaganda Católica (C. A. P. C.)"-k bera fundatzailléen arteko sozio zala eta buruzagi bigarrena.

1932. Donostiako "Editorial Católica"-ren fundazioan parte artzen du diruzko sozio bezela.

1940. "Máquinas de Coser Alfa" Eibar-ko soziedadearen konseilari izendatua da eta il arte irauten du.

1942. Martxoaren 26-an euskaltzain izendatu zuen Juan Carlos Guerra-ren utsunea betetzeko eta garagarrillaren 24-an bere kargua artu zuen.

1945. "Muebles Alfa" Zarauz-ko soziedadearen konseilari izendatua da eta il arte irauten du.

1947. Iraillaren 1-ean bere emaztea il zan Donostian 54 urte zituala.

1949. Maiatzaren 9-an Probintziako Telefonoen zuzendaritza uzten du aren administrazioa "Compañía Telefónica Nacional de España"-ra pasatu baitzan, Ministerioak urte bereko apirillaren 14-an emandako ordena batez.

1951. Azaroaren 9-an R. M. Azkue Euskaltzainburua il zan. Iñazio Maria Etxaide euskaltzainburorde bezela aritu zuen geroago euskaltzainburu izanik il arte.

1953. Abenduaren 14-an Edukazio Nazionalaren Ministroak Alfonso Jakintsuaren Ordena Zivilean Enkomienda gradoarekin sartzea eskeintzen dio, orduan Gipuzkoako Diputazioko buruzagia zuen Jose Maria Caballero Arzuaga jaunaren eskabidez, telefoniaren zientzian egindako lanagatik eta bere euskal estudioakatik.

1954. Abenduaren 1-ean irurogetaamar urte bete ondoren Gipuzkoako Diputazioan bere karguaren jubilazioa artzen du.

1954. Abenduaren 15-ean ezkerreko zankoa moztu zioten belaunaren gainekaldetik Donostiako San Iñazio Klinikari enbolia bat zala kausa.

1962 Azaroaren 14-an il zan Donostian bere etxean, Ategorrieta auzoko "villa Aldatzain"-en.

Argitaratu zituen lanak:

Subfijación, Prefijación y Composición en el idioma Euskaro. Donostia, 1911, 142 orr.

Sobre la organización de las Juventudes Integristas. Donostia, 1911, 63 orr.

Tratado de Sintaxis en el idioma Euskaro. Donostia, 1912, 144 orr.

Las Juventudes Integristas y su labor interior. Donostia, 1914, 48 orr.

El Ingeniero Industrial y la Taquimetría. Boletín de los Alumnos de la Escuela Central de Ingenieros Industriales. Madrid, 1916 urteko uztaila, agustua eta irailleko 9, 10 eta 11-garren numeroak.

-os cálculos económicos en la Técnica Industrial. Gorago aipatu dan aldizkari bera. 1917 urteko maiatzeko 19-garren numeroa.

- El espíritu cristiano y el Integrismo.** Madrid, 1917, 98 orr.
- Cuentos contra el dinero.** "Cruz y Verdad" aldizkaria. Donostia, 1918 urriaren 10-etik 1919 apirillaren 30-erarte.
- Apuntes sobre Telefonía.** Donostia, 1921, 86 orr.
- Estadística y breves apuntes históricos de la Red Telefónica de Guipúzcoa.** Donostia, 1922, 40 orr.
- Descripción, historia y estadística de la Red Telefónica de Guipúzcoa. Description historique et statistique du Réseau des Telephones en Guipúzcoa.** Villafranca de Oria, 1923.
- Apuntes razonados sobre el Programa Integrista.** Villafranca de Oria, 1923, 64 orr.
- El Verbo Vascongado.** Donostia, 1923, 260 orr.
- Medidas eléctricas y mecánicas.** Burgos, 1924, 128 orr.
- La Telefonía Automática en Guipúzcoa, al alcance de todos.** Donostia, 1925, 32 orr.
- Apuntes sobre Telefonía.** Bigarren edizio aberastua. Burgos, 1925, 144 orr.
- Comunicaciones de Guipúzcoa.** Burgos, 1925, 224 orr.
- Programa Integrista Explicado.** Burgos, 1925, 402 orr.
- Los sistemas modernos de Telefonía Automática.** Itzaldia. Donostia, 1926, 52 orr.
- Disposiciones legislativas sobre Telefonía.** 1926, 320 orr.
- La Corriente Telefónica.** Burgos, 1927, 464 orr.
- Medidas de equivalente y nivel de transmisión.** Donostia, 1928, 30 orr.
- El sistema Ericsson de Telefonía Automática.** Tomo I. Donostia, 1928, 172 orr.
- Telefonoaren sortze ta aurrerapena.** Itzaldia. Donostia, 1929, 52 orr.
- Resumen Descriptivo, Histórico y Estadístico acerca de la Red Telefónica de Guipúzcoa.** Donostia, 1929, 32 orr.
- El Eco (telefónico).** "Dyna" aldizkaria. Bilbao, 1930 azaroa.
- Tratado de Sufijación, Prefijación y Composición en el idioma Euskaro.** Toluosa, 1931, 304 orr. Bigarren edizioa.
- El sistema Ericsson de Telefonía Automática.** Tomo II. Donostia, 1934, 168 orr.
- Memorias relativas a la Red Telefónica de Guipúzcoa, desde 1912 a 1934, ambos años inclusive.**
- Sobre el origen y parentesco del pueblo Euskaro y su idioma.** "La Cruz" aste-karia, Donostia, 1935, ilbeltzetik maiatzera.
- Apéndice a la obra "La Corriente Telefónica".** Donostia, 1938, 144 orr.
- Estudios sobre la estructura y equipo de las Centrales Telefónicas Automáticas.** "Metalurgia y Electricidad" aldizkaria, 1939 urteko ilbeltza, martxoa, garagarrilla, azaroa ta abendua ta 1940 urteko ilbeltza ta martxoa.
- Lecciones sobre Telefonía Automática.** Madrid, 1942, 80 orr.
- Desarrollo de las Conjugaciones Euskaras Perifrásticas y Sintéticas, respetuosas y familiares.** Eraskin bi daramazki: Bata, "Jatorrizko euskeraren azterpenaldia" Euskaltzaindian egin zuen sarrera itzaldia, eta bestea, "Sobre

la significación de los afijos de las flexiones del Verbo Vascongado". Donostia, 1944, 524 orr.

El sistema Ericsson de Telefonía Automática. Tomo III. Donostia, 1947, 200 orr. Argitaratu gabe ere utzi ditu gauza batzuk.

SEBERO ALTUBE ETA LERTXUNDI (1877-1963)

Mondragoen jaio zan 1877 azaroaren 8-an. Ikaskintzak Mondragoen bertan egin zituan. 1902 urtetik aurrera Gernika-ko Orfeiko zuzendaria izan zan. 1915-tik aurrera Gernika-ko "Alkartasuna" izeneko arma fabrikaren buru. 1920 urtean euskaltzain izendatua izan zan. 1933 urtean Gernika-ko alkate egin zuten eta 1936 urtean Frantzia-ra joan zan eta Pabe-n bizi izan zan luzaro. Berriz Gernika-ra itzuli zan urte asko eztala eta bertan il da 1963 agustuaren 27-an.

Beti eskatu zien euskeralogoai munduko linguistarik onenak eta aien metodoak ezagutu eta estudiatu bear zirala eta batez ere **La Vida del Euskera** liburuan garbizalekeriaren akatsak begien bistan jarri zizkigun eta gure literaturaren forma bide zabalago eta naturalagoetara eraman nai izan zuen, linguistika zientziaren ezagutzeak ortara baitarama edozein. Euskal sintaxis eta azentuaz ere aritu zan eta bi liburu utzi dizkigu: **Enderismos** eta **El Acento Vasco**. Badu beste obra bat ere: **Observaciones al Tratado de Morfología Vasca de R. M. de Azkue**. Ortaz gaiñera beste lan asko eta asko dauzka argitaratuak zenbait euskal aldizkaritan eta emen eztitugu zeatzasunak jarriko be- rri oso labur bat besterik ezpaitegu eman nai. 1958 urteko abenduan Euskaltzaindiak Bilbon prestatu zuen Euskalzaleen Biltzarrean parte artu zuen eta aren ondoren euskal itzei buruz artu ziran erabakiak zeoro onetsi zituan eta zeoro aien alde atera zan.

Euskaltzaindiak bere gizon nagusienetako bat galdu du.

LEON LEON (1896-1962)

Uztaritzen ilda Leon Leon erretore nagusia 1962 otsaillaren 12-an. Hazparne-n jaio zan 1896 urtean familia ohoragarri batean eta gazterik aditu zuen apez egiteko deia. Eskolak bere errian eta gero Beloken egin zituen. Bigarren maillakoak egiten ari zala Europa-ko gerra piztu zan eta gudu tokietara joan zan. Desarmatu bezain laster Baiona-ko Seminario aundian sartu zan. Saint-Pierre jaun apeza zagoen an eta orduko apezgai andana bat euskera maitatza bultzatu zuen eta Leon Leon ere euskera lantzen aritu zan. 1923 urtean apeztu zan eta Hazparne-ra izendatu zuten irakasle eta urte bete egin zuen kolejoan. Gero Baiona-ra joan zan eta bost urte egon zan eta an eman zuen euskeraz **Imitazionea**. Donibane Lohizunera bialdu zuten bikario eta an 1932 urtean Arrangoitzeko erretore egin zuten arte egon zan. 1939-ko gerra eldu zanean Arnegi-ko mugaren zain jarri zuten. 1941 urtean jaun apezpikuak